

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 6/2025 Foru Agindua, urtarrilaren 13koa. Aldatzea abenduaren 20ko 773/2021 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren 296. eredu: establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarak eta atxikipenen eta konturako diru sarreren urteko aitortpena

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren 296 eredu onesten duen abenduaren 20ko 773/2021 Foru Aginduaren aldaketa, hain zuzen, informazio fiskala hobeto lortzeko mekanismoak ezartzean datza, informazioaren kalitatea handitzeko; izan ere, funtsezko elementua da Zerga Administrazioak esleituta dituen laguntza, ikerketa eta kontrol jarduketak eraginkorrak izan daitezen.

Horrela, Foru Agindu honek erabat integraturik arautzen du orain arte indarrean dagoen 296 ereduaren informazio aitortpenari aplikatzekoa zaion araudia.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak horren harira emandako txostena aztertu da.

Horregatik, dogozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau,

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Aldatzea abenduaren 20ko 773/2021 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren 296. eredu: establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarak eta atxikipenen eta konturako diru sarreren urteko aitortpena.

Honako aldaketa hauek egiten zaizkio abenduaren 20ko 773/2021 Foru Aginduari:

Bat. "HARTZAILEAREN IFZ" eremuaren edukia aldatu da, 18tik 26ra bitarteko posizioak dituen, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 296 ereduko 2. motako erregistro diseinuetan (Hartzailearen erregistroa), honela idatzita geratuko da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
18-26	Alfanumerikoa	HARTZAILEAREN IFZ Hartzaileak Espainian emandako IFZrik badu, IFZ adieraziko da, uztailaren 8ko 71/2008 Foru Dekretuak, identifikazio fiskaleko zenbakiaren inguruko betebeharrak eta haren osaera arautzen dituenak, ezarritako erregelei jarraituz (ALHAO, 88. zk.a, abuztuaren 4koa).
		Hala ere, nahitaez adierazi beharko da, "HARTZAILE BITARTEKARIA" eremuan (2 motako erregistroko 134 posizioa) "1" balioa duenean (Espainian egoiliarra, helbideratua edo ordezkaturia).
		Eremu hori eskuinaldean lerrotatu behar da, azken posizioan kontrol karakterea jarri behar da eta ezkerreko posizioak zeroz bete behar dira.

Bi. "HARTZAILEAREN DEITURAK ETA IZENA, SOZIETATEAREN IZENA EDO IZENDAPENA" eremuaren edukia aldatu da, 37tik 76ra bitarteko posizioak dituena, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 296 ereduko 2. motako erregistro diseinuetan (Hartzailearen erregistroa), honela idatzita geratuko da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
37-76	Alfanumerikoa	Hartzailearen deiturak eta izena, sozietatearen izena edo izendapena Oro har, EEEZren zergaduna izango da hartzailea.
		Hala ere, "Merkatu Gakoa" eremua bete bada (2 motako erregistroko 412 posizioa) bigarren mailako merkatu ofizialetan negoziatzen daitezkeen baloreetatik (dibidenduak eta interesak) eratorritako etekinak direlako, eta haien ordainketa jaulkitzailatik zergadunera iritsi arte bitartekari kate batetik igarotzen bada, eremu horretan hurrengo bitartekaria identifikatuko da. Hau da, ordainketa kate horien kasuan, hartzaile gisa bitartekari bat agertuko da, salbu eta katea Espainian amaitzen bada eta aitortzailea azken bitartekaria bada; kasu horretan, zergaduna identifikatuko da.
		Etekin horien ordainketa 2000ko azaroaren 22ko 107 Foru Dekretuan aurreikusitako atxikipenak doitzeko prozedura berezia erabili bada, prozedura horretan esku hartzen duen entitate gordailuzainak, 296 ereduko aitortzearen, "HARTZAILEA" eremuan errenta lortzen duen zergadunaren datuak jasoko ditu, EZ da beteko "HARTZAILE BITARTEKARIA" eremua (2 motako erregistroko 134 posizioa), eta "X" bat jarriko da "107/2000 FD ATXIKIPENEN PROZEDURA" eremuan (2 motako erregistroko 411 posizioa).
		a) Pertsona fisikoa bada, honela idatziko da: lehen deitura, zuriune bat, bigarren deitura, zuriune bat, eta izen osoa, hurrenkera horretan nahitaez. Hartzailea adingabea bada, eremu horretan adingabearen deiturak eta izena adieraziko dira. b) Pertsona juridikoa edo errenta egozketaren araubideko erakundea bada, sozietatearen izena edo erakundearen izen osoa adieraziko da, anagramarik gabe.

Hiru. "HARTZAILE BITARTEKARIAREN BIC KODEA" eremu berria gehitu da, 85tik 90era posizioak dituena, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 296 ereduko 2. motako erregistro diseinuetan (Hartzailearen erregistroa), haren edukia hau da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
85-90	Alfanumerikoa	HARTZAILE BITARTEKARIAREN BIC KODEA "GAKOA" eremuan (2 motako erregistroko 100-101 posizioak) "1" edo "2" balioak jaso direnean baino ez. "HARTZAILE BITARTEKARIA" eremuak (2 motako erregistroko 134 posizioa) "2" balioa badu (Aitortzeneko hartzaile atzerrian dagoen bitartekaria da), eta hartzaile bitartekari gisa agertzen den erakundea banku entitate bat bada, BIC (Bank Identifier Code) kodeko 6 karaktere jasoko dira, entitateari dagozkion lau karaktereak eta herrialdeari dagozkion biak.

Lau. "SORTZAPEN DATA" eremuaren edukia aldatu da, 91tik 98ra bitarteko posizioak dituena, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 296 ereduko 2. motako erregistro diseinuetan (Hartzailearen erregistroa), honela idatzita geratuko da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
91-98	Numerikoa	Sortzapen data Errentaren sortzapen data adieraziko da. Honela banatzen da:
		91-92 EGUNA: numerikoa: bi posizio.
		93-94 HILA: numerikoa: bi posizio.
		95-98 URTEA: numerikoa: bi posizio.
		Balore negoziagarrietatik eratorritako dibidenduen edo interesen kasuan, dibidenduak banatzeko akordioan ezarritako ordainketa eguna edo interesen mugaeguna jarriko da, hurrenez hurren.

Bost. "AZPIGAKOA" eremuaren edukia aldatu da, 102tik 103ra bitarteko posizioak dituen, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 296 ereduko 2. motako erregistro diseinuetan (Hartzailearen erregistroa), honela idatzita geratuko da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUAREN DESKRIPZIOA
102-103	Numerikoa	AZPIGAKOA Atxikipena edo konturako diru sarrera kalkulatzeko kontuan hartutako inguruabarrei dagokien azpigakoa hautatu behar da; hona zerrenda:
		01 21/2014 Foru Arauaren, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarenaren, 25. artikuluko tasa orokor edo tributazio eskaletan egindako atxikipena.
		02 Hitzarmen bateko zergapetze mugak aplikatuz egindako atxikipena.
		03 Barne salbuespena (nagusiki: Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren Foru Arauaren 14. artikulua), 12. eta 15. azpigakoetan aipatzen diren kasuak izan ezik.
		04 Hitzarmen baten ondoriozko salbuespena.
		05 Atxikipenik ez, zergadunak edo haren ordezkariak zerga alde zurretik ordaindu duelako.
		06 Aitorpeneko hartzailea jabetza intelektualaren gaineko eskubideak multzoan kudeatzen dituen atzerriko erakundea da eta atxikipena hitzarmen bateko zergapetze muga edo salbuespena aplikatuta egin da.
		08 Aitorpeneko hartzailea Espainiako talde inbertsioko erakundeen akzioak edo partaidetzak merkaturatzen dituen atzerriko erakundea da eta atxikipena hitzarmen bateko zergapetze muga (ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren foru arauaren 25. artikuluan ezarritakoa baino txikiagoa) aplikatuta egin da.
		09 Aitorpeneko hartzailea Espainiako talde inbertsioko erakundeen akzioak edo partaidetzak merkaturatzen dituen atzerriko erakundea da eta atxikipena ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren foru arauaren 25. artikuluan ezarritako karga tasa aplikatuta egin da.
		10 Konturako diru sarrera, Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren Foru Arauaren 36.2 artikuluan aipatzen direnetakoa, errentak esleitzeko araubidean dagoen entitate batek egina egoiliar ez den kide bati esleitutako errentari dagokionez.
		11 Hartzaile aitortua da zergadun bat ordaintzaileari egiaztatu diona ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren foru arauaren 32. artikulua jasoriko prozedura erabili duela.
		12 Dietak eta bidaiak gastuetarako kopuruak, salbu eta kargatik salbuetsita daudenak (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegiaren 13. artikulua).
		15 Gauzazko lan etekin salbuetsiak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Legearen 42.3 artikuluan aipatutakoak.
Aurreko zerrendako "06", "08", "09", "10" eta "11" zenbakietan azaldutako kasuetan berariazko azpigako hauek ezarri behar dira nahitaez, gainerakoak aintzat hartu gabe.		

Sei. "BITARTEKARIA" eremuaren titulua eta edukia aldatu da, 134 posizioa duena, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 296 ereduko 2. motako erregistro diseinuetan (Hartzailearen erregistroa), honela idatzita geratuko da:

POSIZIOA	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
134	Numerikoa	HARTZAILE BITARTEKARIA "GAKOA" eremuan (2 motako erregistroko 100-101 posizioak) "1" edo "2" balioak jaso direnean bakarrik. Kasu hauetan beteko da: aitorpeneko hartzailearen izaera besteren kontura atxikipenari lotutako errentak ordaintzen dituen erakunde batena denean, edo dagokion etekina edo errenta sortzen duten balore errenten gordailuzaina edo kobrantza kudeatzen duen erakunde bat denean. Balio hauek har ditzake:
		1 Aitorpeneko hartzailea Espainian egoiliarra, helbideratua edo ordezkaturia den bitartekaria da.
		2 Aitorpeneko hartzailea atzerrian dagoen bitartekaria da.
Ez da beteko, ordea, gainerako kasuetan, hau da, aitorpeneko hartzaileak eredu honetan ezarri beharreko atxikipenak edo konturako diru sarrerak jasaten dituenean ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren kargarengatik.		

Zazpi. "KODEA" eremuaren edukia aldatu da, 135 posizioa duena, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 296 eredu 2. motako erregistro diseinuetan (Hartzailearen erregistroa), honela idatzita geratuko da:

POSIZIOA	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
135	Numerikoa	KODEA "Gako" eremuan "1" edo "2" baloreak adierazi direnean baino ez (2 erregistro motako 100-101 posizioak). Identifikatu "Jaulkitzailearen kodea" eremuaren edukia. Balore hauek izan ditzake:
		1 Jaulkitzailearen kodea IFZ bati dagokio.
		2 Jaulkitzailearen kodea ISIN kode bati dagokio.
		3 Jaulkitzailearen kodea ISIN esleituta ez duten atzerriko baloreei dagokie eta haren jaulkitzaileak ez du IFZrik.
		"MERKATU GAKOA" eremuan (2 motako erregistroko 412 posizioa) "A" bat agertzen bada (Espainiako bigarren mailako balore merkatu ofiziala), beti "2" zenbakia jarri beharko da.

Zortzi. "JAULKITZAILEAREN KODEA" eremuaren edukia aldatu da, 136tik 147ra bitarteko posizioak dituena, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 296 eredu 2. motako erregistro diseinuetan (Hartzailearen erregistroa), honela idatzita geratuko da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
136-147	Alfanumerikoa	JAULKITZAILEAREN KODEA "Gako" eremuan "1" edo "2" baloreak adierazi direnean baino ez (2 erregistro motako 100-101 posizioak). Eremu hau jaulkitzaile edo balioa identifikatzeko beteko da.
		Oro har, ISIN kodea adieraziko da. Kode hori arautuko da Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren uztailaren 28ko 1/2010 Arau Teknikoaren arabera. ISIN kodea nahitaez jaso behar da, "MERKATU GAKOA" eremuan (2 motako erregistroko 412 posizioa) "A" bat agertzen bada (Espainiako bigarren mailako balore merkatu ofiziala).
		Zer egin balore horiek ISIN kodea esleituta ez badute: – "KODE" eremuan (135 posizioa) 1 adierazi bada, jaulkitzaile identifikazio fiskaleko zenbakiaren bidez identifikatuko da. Zenbaki hori administrazio eskudunak emango du. – "KODEA" eremuan (135 posizioa) 3 jarri bada, "ZXX" gakoa adieraziko da, "XX" estatu jaulkitzailearen kodea izanik, indarrean dauden estatu eta lurraldeen gakoaren arabera.
		Era berean, ISIN kodea esleitu gabe duten nazioz gairako erakundeek (Munduko Bankua...) jaulkitako tituluak badira, "ZNN" adieraziko da. "ZNN" horren "NN" horiek indarreko gako alfabetikoak izango dira.

Bederatzi. "ORDAINKETA" eremuaren titulua eta edukia aldatu da, 148 posizioa duena, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 296 eredu 2. motako erregistro diseinuetan (Hartzailearen erregistroa), honela idatzita geratuko da:

POSIZIOA	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
148	Numerikoa	AITORTZAILEA: ORDAINKETA "Gako" eremuan "1" edo "2" baloreak adierazi direnean baino ez (2 erregistro motako 100-101 posizioak). Ondoren zerrendatzen diren zenbaki hauetako bat adieraziko da aitortzaileak egindako ordainketa honako kontzeptu hauetako baten batengatik egin duen azaltzeko:
		1 Jaulkitzaile eta/edo atxikitzaile gisa.
		2 Bitartekari gisa, "3." kasuan izan ezik.
		3 Bitartekari gisa, aurreko ordaintzailea atzerrian badago.
		Atzerriko jaulkitzaileen baloreen ordainketa bada, gakoa "1" izango da (jaulkitzaile eta/edo atxikitzaile gisa).

Hamar. "ORDAINTZEKE" eremuaren edukia aldatu da, 170 posizioa duena, Foru Agindua-ren II. eranskinean jasotzen diren 296 ereduko 2. motako erregistro diseinuetan (Hartzailearen erregistroa), honela idatzita geratuko da:

POSIZIOA	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
170	Alfabetikoa	<p>ORDAINTZEKE "GAKO" eremuan "1" edo "2" baloreak adierazi direnean baino ez (2 erregistro motako 100-101 posizioak). Eremu horretan "X" idatziko da ekitaldian zehar hartukizunak sortu eta aitortzaileak titularra kobratzera aurkeztu ez delako ordaindu ez baditu. Eremu horretan "X" adieraziz gero, hartzaile (erregistro) beraren gainerako eremuak honela beteko dira:</p> <p>HARTZAILEAREN IFZ: 999 999 999 LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZ: 999 999 999 F/J: edukirik gabe. DEITURAK ETA IZENA, SOZIETATEAREN IZENA EDO IZENDAPENA: ordaintzeke dauden baloreak. ERREGISTROAREN IDENTIFIKATZAILEA EDO ORDENA ZENBAKIA: dagokiona. HARTZAILE BITARTEKARIAREN BIC KODEA: edukirik gabe. SORTZAPEN DATA: dagokiona. IZAERA: dagokiona. GAKOA: dagokiona. AZPIGAKOA: dagokiona. ATXIKIPENEN ETA KONTURAKO DIRU SARREREN OINARRIA: dagokiona. ATXIKIPEN %: dagokiona. ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO DIRU SARRERAK: dagozkionak. HARTZAILE BITARTEKARIA: edukirik gabe. KODEA: dagokiona. JAILKITZAILEAREN KODEA: dagokiona. AITORTZAILEA: ORDAINKETA: dagokiona. KODE MOTA: dagokiona. BALOREEN KONTUAREN KODEA: dagokiona. SORTZAPEN EKITALDIA: edukirik gabe. MAILEGUAREN HASIERA EGUNA: dagokiona. MAILEGUAREN EPEMUGA: dagokiona. MAILEGU-EMAILEARI ORDAINTZEA: dagokiona. ORDAINAK: dagokiona. BERMEAK: dagokiona. HARTZAILEAREN HELBIDEA: edukirik gabe. KONTURAKO DIRU SARRERA JASANARAZIAK: dagokiona. AURREKO ORDAINTZAILEAREN IFZ: dagokiona. 107/2000 FD ATXIKIPENEN PROZEDURA: dagokiona. MERKATU GAKOA: dagokiona. HARTZAILEAREN LEI KODEA: edukirik gabe. ZERGA EGOITZA DEN HERRIALDEAN DEN IFZ: edukirik gabe. JAIOTEGUNA: edukirik gabe. JAIOTERRIA: edukirik gabe. HARTZAILEAREN ZERGA EGOITZAREN HERRIALDEA EDO LURRALDEA: edukirik gabe.</p> <p>Ordaindu gabeko etekinak edo errentak ordaintzen zaizkion ekitaldiko aitortpenean aurkeztu behar da hartzailearen datuen informazioa. Hala gertatzen denean, etekinak edo errentak ordaindu diren ekitaldiko aitortpenean, "SORTZAPEN EKITALDIA" eremuan haiek sortu diren ekitaldiko lau zifrak adieraziko dira, nahiz eta titullarrak kobratzera aurkeztu ez zirelako ordaindu ez.</p>

Hamaika. "HARTZAILEAREN HELBIDEA" eremuaren edukia aldatu da, 227tik 388ra bitarteko posizioak dituen, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 296 ereduko 2. motako erregistro diseinuetan (Hartzailearen erregistroa), honela idatzita geratuko da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA	
227-388	Alfanumerikoa	HARTZAILEAREN HELBIDEA Hartzaileak bizi den herrialdean edo lurraldean duen helbidea adieraziko da, eta aukerakoa izango da "HARTZAILE BITARTEKARIA" eremua bete denean (2 motako erregistroko 134 posizioa).	
		Eremu hori hauetan banatzen da:	
		227-276	HELBIDEA / ADDRESS: egoitzaren helbidea adieraziko da eremu horretan: bide mota (kalea, plaza, etorbidea, errepidea...), herri bidearen izena, etxearen zenbakia edo puntu kilometrikoa, eta abar.
		277-316	EGOITZARI BURUZKO BESTE DATU BATZUK: beharrezkoa bada, egoitza erabat identifikatzeko beharrezkoak diren datu gehigarriak adieraziko dira, eremu horretan.
		317-346	HERRIA/HIRIA: egoitza dagoeneko herriaren edo hiriaren izena adieraziko da.
		347-376	PROBINTZIA/ESKUALDEA/ESTATUA: egoitzaren helbidea zuzen identifikatzeko beharrezko denean, egoitza dagoen probintzia, eskualdea, estatua, departamentua edo bestelako barruti politiko zein administratiboa adieraziko da eremu horretan.
		377-386	POSTA KODEA (ZIP): egoitzaren posta kodea adieraziko da (eremu alfanumerikoa, 10 posizioak).
387-388	HERRIALDEAREN KODEA: Bizilekua dagoen estatu edo lurraldeari dagokion kodea jarri behar da, indarrean dauden estatu eta lurraldeen gakoaren arabera. Eremu alfabetikoa, bi posizioak.		

Hamabi. "AURREKO ORDAINTZAILEAREN IFZ" eremu berria gehitu da, 402tik 410era posizioak dituen, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 296 ereduko 2. motako erregistro diseinuetan (Hartzailearen erregistroa), haren edukia hau da;

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
402-410	Alfanumerikoa	AURREKO ORDAINTZAILEAREN IFZ "GAKOA" eremuan (2 motako erregistroko 100-101 posizioak) "1" edo "2" balioak jaso direnean baino ez. Ordainketa kateko aurreko ordaintzailearen IFZ nahitaez adierazi behar da, baldin eta "AITORTZAILEA: ORDAINKETA" eremuak (148 posizioa) "2" balioa badu (Bitartekari gisa, salbu "3." kasuan).

Hamahiru. "107/2000 FD ATXIKIPENEN PROZEDURA" eremu berria gehitu da, 411 posizioa duena, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 296 ereduko 2. motako erregistro diseinuetan (Hartzailearen erregistroa), haren edukia hau da;

POSIZIOA	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
411	Alfabetikoa	107/2000 FD ATXIKIPENEN PROZEDURA "GAKOA" eremuan (2 motako erregistroko 100-101 posizioak) "1" edo "2" balioak jaso direnean baino ez. "X" bat baino ez da jarriko, baldin eta, zergadun horri dagokionez, atxikipena 2000ko azaroaren 22ko Foru Dekretuaren atxikipenak doitzeko prozedura berezia erabiliz doitu bada. Bestelako kasuetan, ez da bete behar.

Hamalau. "MERKATU GAKOA" eremu berria gehitu da, 412 posizioa duena, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 296 ereduko 2. motako erregistro diseinuetan (Hartzailearen erregistroa), haren edukia hau da;

POSIZIOA	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
412	Alfabetikoa	MERKATU GAKOA "GAKOA" eremuan (2 motako erregistroko 100-101 posizioak) "1" edo "2" balioak jaso direnean baino ez. Aitortutako errenta bigarren mailako merkatu ofizialetan negozioa daitezkeen baloreetatik (dibidenduak eta interesak) eratorritako etekina bada, eremu hori honako balio hauetakoren batekin beteko da: "A": Espainiako baloreen bigarren mailako merkatu ofiziala. "B": EBko atzerriko baloreen bigarren mailako merkatu ofiziala. "C": Bestelako atzerriko merkatu ofizialak. "D": Beste batzuk.

Hamabost. "HARTZAILEAREN LEI KODEA" eremu berria gehitu da, 413tik 432era posizioak dituen, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 296 ereduko 2. motako erregistro diseinuetan (Hartzailearen erregistroa), haren edukia hau da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
413-432	Alfanumerikoa	HARTZAILEAREN LEI KODEA "GAKOA" eremuan (2 motako erregistroko 100-101 posizioak) "1" edo "2" balioak jaso direnean baino ez. Aitorpeneko hartzailearen LEI kodea jasoko da, alegia, Erakunde Juridikoaren Identifikatzailea (Legal Entity Identifier), zeina erabiltzen baita finantza transakzioetan parte hartzen duten erakundeak identifikatzeko eta finantza merkatuetako informazio baldintzak betetzeko. Nahitaezkoa izango da, baldin eta "HARTZAILE BITARTEKARIA" eremuak (2 motako erregistroko 134 posizioa) "2" balioa badu (aitorpeneko hartzailea atzerrian dagoen bitartekaria da).

Hamasei. "ZERGA EGOITZA DEN HERRIALDEAN DEN IFZ" eremuaren edukia aldatu da, 433tik 452ra bitarteko posizioak dituen, Foru Aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 296 ereduko 2. motako erregistro diseinuetan (Hartzailearen erregistroa), honela idatzita geratuko da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
433-452	Alfanumerikoa	ZERGA EGOITZA DEN HERRIALDEAN DEN IFZ Hartzaileak bizi den herrialdean edo lurraldean identifikazio fiskaleko zenbaki bat badu esleitura, bizi den herrialdean edo lurraldean identifikatzen duten zenbakizko digituak eta digitu alfabetikoak jasoko dira.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra, eta 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera aurkezten diren eragiketei aplikatuko zaie lehenengo aldiz, 2024. urteko informazioari dagokionez.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 13a

Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA